

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Alkateordeak izendatzea. Alkate-udalburuaren 1102 zenbakiko Dekretuaren bigarren aldaketa, 2023ko ekainaren 20koa

Ikusirik apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak Arazten dituen 7/1985 Legeko 23,3. artikulua eta Udalaren Antolamendurako Araudiko (UAA) 36.1. artikulua azalduta dakartela Tokiko Gobernu Batzordeko kideen artean alkate-udalburuak bere ordezkotza egiteko alkateordeak izendatu eta kargutik kenduko dituela askatasun osoz.

Kontuan hartu da udal honetako alkateordeak izendatzen dituen 2023ko ekainaren 20ko 1102 Dekretuaren edukia.

Ikusi da alkate-udalburuak 0984 zenbakiko Dekretua eman zuela 2024ko ekainaren 19an, alkateordeen izendapenean lehen aldaketa egitekoa.

Aztertu da Idazkaritza Nagusiaren 2025eko ekainaren 30eko txostena (ALK 25/12).

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

LEHENA. Alkateordeak izendatzen dituen 2023ko ekainaren 20ko 1102 Dekretua aldatzea eta, ondorioz, honako hau izendatzea:

- Lehen alkateordea: Iñigo Martínez Cerrillo.

Alkateordeek alkatetza hau ordezkatzeko dute beren eginkizun guztietan, izendapenaren hurrenkeraren arabera, baldin eta alkatetzarik ez badago, gaixorik badago edo ezinduta badago eta, ondorioz, alkateordeak ezin baditu bere eskumenak bete, eta alkatetza-kargua hutsik geratzen bada, alkate berriak kargua hartu arte beteko ditu alkatetza-eginkizunak.

Oro har, ordezkapen hori dekretu bidez egingo da, eta dekretu hori UAAREN 36.1 artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da. Aurrekoa gorabehera, ebatzen hori ez da beharrezkoa izango ordezkapena unean-unean, justifikatuta eta Alkatetzak Idazkaritza Nagusiari berariaz adierazita dagoenean.

Aurrekoaz gain, alkatea 24 orduz baino gehiagoz udalerritik kanpo geratzen bada, eskuordetza eman gabe, edo ustekabeko arrazoiren batengatik hura ematea ezinezkoa gertatu bazaio, dagokion alkateordeak ordezkatzeko du bere eginkizun guztietan, eta gainerako udalbatzari emango dio horren berri.

BIGARRENA. Indar gabetza alde aurretiko izendapenak eta dekretu honen edukiarekiko aurkaritzan legokeen ebatzen oro.

HIRUGARRENA. Dekretu honek 2025eko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, egun hori barne.

LAUGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, MEOn 36.1 artikuluan eta AJAren 46. artikuluan xedatutakoa betez.

BOSGARRENA. Erabaki hau interesdunei, udaleko talde politikoetako bozeramaileei eta udal arloei jakinaraztea, hurrengo ohiko Plenoan berri emonez.

Laudio, 2025eko uztailaren 1a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ